

## **Prest daude Hezkuntzako 4. mailako ikasleei zuzendutako Orientazio Saioak**

2017/01/25

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean, arratsaldean, Orientazio Saioak jasoko dituzte Hezkuntza graduetako 4. mailako ikasleek. Urtero bezala, EAEko eta Nafarroako erakunde desberdinetako ordezkariak etorriko dira Eskoriatzako campusera informazioa ematera eta esperientziak partekatzera. Orientazio Saiek hartu duten garrantzia ikusita, jarduera akademikoaren ordutegian txertatu dira.

Aurtengo Orientazio Saioetan parte hartuko dute, besteak beste, sare publikoko zein kontzertatuetakoko ordezkariak. Gainera, alde batetik, ikasleek jasoko dituzte ikasle ohien testigantzak eta ekintzailetasunaren gaineko formazioa eta, bestetik, ezagutuko dituzte zeintzuk aukera dituzte atzerrira joateko ikastera eta lan egitera edo fakultatean bertan ikasten jarraitzeko dituzten bideak: masterrak, bigarren graduak eta bigarren aipamenak, aditu tituluak...

Orientazio Saioen helburua da ikasleei laguntzea etorkizun laburrean hartu beharko dituzten erabaki akademiko eta pertsonalean: Ikasten jarraitu ala lanerako bidea hartu? Zer ikasi? Non?

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasleek martxoan egingo dituzte Orientazio Saioak.



Iaz Eskoriatzako campusean egindako Orientazio Saioa.